

BILBAO EXHIBITION CENTRE SOLAR, A.I.E.

Sozietatearen izena

Bilbao Exhibition Centre Solar, A.I.E.

IFK

V95296513

Izaera

Ekonomia-intereseko taldea.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Gutxi gorabeherakoa.

Sorrera

Sozietatea 2004ko urtarrilaren 15ean egindako eskritura publiko bidez eratu zen.

Sail-atxikipena

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna.

JESN

3519 Beste mota batzuetako energia elektrikoaren ekoizpena.

Helburu soziala

Eraketa-eskrituraren arabera, taldearen helburu soziala da Barakaldoko udal-mugartean eguzki-planta fotovoltaiko bat eraiki eta ustiatzea, eguzki-erradiazioa baliatuta energia elektrikoa ekoizte aldera. Hartara, Bilbao Exhibition Centre, S.A., Energiaren Euskal Erakundea eta Naturgas Energía Participaciones, S.A.U. erakundeen berezko jarduera osatuko da, eta sortutako energia eremu horretan elektrizitatea banatzeko sarera bideratuko da.

2004ko abenduaren 15ean, taldeak errentamendu-kontratua sinatu zuen Bilbao Exhibition Centre, S.A. merkataritza-sozietatearekin. Kontratu horren bidez, taldeak errentan ematen dizkio instalazio fotovoltaikoak, eta errentaren zenbatekoa da instalazio horietan sortutako energia elektrikoaren truke Bilbao Exhibition Centre, S.A. sozietateak enpresa banatzaileari egiten dion fakturaren zenbateko berekoa. Errenta-kontratu horren iraunaldia 20 urtekoa da, eta urtero berrituko da, bi aldeetako batek esanbidez uko egiten ez badu.

Sailkapena kontabilitate nazionalean


Enpresa pribatua.

Kapital soziala

275.000 €

Kapital sozialaren osaera

Energiaren Euskal Erakundea	% 30,00
Bilbao Exhibition Centre, S.A.	% 45,00
Naturgas Energía Grupo, S.A.	% 25,00



Administrazio Kontseilua

Honako hauek dira ekitaldiko urteko kontuak egin dituzten Administrazio Kontseiluko kideak:

Xabier Basañez Llantada jauna	Kontseiluburua. Bilbao Exhibition Centre, S.A.
Andoni Guisasola Díaz de Mendivil jauna	Bilbao Exhibition Centre, S.A.
Juan Carlos Sinde Echevarría jauna	Bilbao Exhibition Centre, S.A.
Javier Marqués González jauna	Energiaren Euskal Erakundea.
Iñaki Bóveda Uriarte jauna	Energiaren Euskal Erakundea.
Cristina Arana Zubimendi andrea	Idazkaria. Naturgas (EDP taldea).

Ekitaldiko urteko kontuak eta kudeaketa-txostena

[Auditoria-txostena, urteko kontuak eta ekitaldiko kudeaketa-txostena.](#)

Ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	400.761 €
Ondare garbia	392.753 €
Negozio-zifraren zenbateko garbia	52.813 €
Batez besteko langile-kopurua	0

Sozietatearen helbidea

Azkue erronda, 1 - 48902 Ansio, Barakaldo (Bizkaia)

Webgunea

Ez dago eskura.